


“ARANTZAZUKO ADISKIDEAK. RED SOCIAL DE ARANTZAZU”

ELKARTEKO ESTATUTUAK.

ARANTZAZU (OÑATI), 2016KO EKAINA



ARANTZAZUKO
ADISKIDEAK
RED SOCIAL DE ARANTZAZU

ESTATUTOS DE LA ASOCIACIÓN

“ARANTZAZUKO ADISKIDEAK. RED SOCIAL DE ARANTZAZU”

ARANTZAZU (OÑATI), JUNIO DE 2016

[Handwritten signature]

J. M. Auzer

Asociación "Arantzazuko Adiskideak. Red Social de Arantzazu" Elkarteko Estatutuak.



GOBERNANTZA PUBLIKO
ETA AUTOGOBERNU SAILA
Elkarteen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA
PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO
Registro de Asociaciones

LEHENENGO KAPITULUA

IZENA

I. Artikulua. Erregistroko G/12038/2005 zenbakiaz 2005eko irailaren 26an inskribatutako Asociación "Arantzazuko Adiskideak. Red social de Arantzazu" Elkarteko Estatutuok, ekainaren 22ko 7/2007 Euskadiko Elkarte-Legearen eta Elkartzeko Eskubidea erregulatzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren arabera aldatu dira, Euskadiko Autonomia-Estatutuaren 9. eta 10.13. artikuluetan jasotzen denarekin bat eginez.

Aipatutako Elkarteak honako araubidea izango du: Elkarte-Legeak, Estatutu hauek berak (Legearen aurkakoak ez badira) eta bere gobernu-organoei behar bezala hartutako erabakiak (Legearen edota Estatutuen aurkakoak ez badira).

ELKARTEAREN HELBURUAK

2. Artikulua. Elkartearen xede nagusia, Arantzazuko Santutegiaren inguruan, inspirazio frantziskotar bera partekatzen duten eta beren gizarte-bokazio etikoa, humanista eta solidarioa sustatzeko nahia duten frantziskotarrak, gizarte-erakundeak eta gizabanakoak elkarte-erreferentzia beraren babespean biltzea da.

Xede nagusi honi jarraiki, Elkarteko helburuak honakoak dira:

1. Partekatzen dituzten printzipio frantziskotarrak, humanistak, etikoak eta elkarkidetzakoak oinarri izanik, Elkarteko kide diren frantziskotarrak, Arantzazuko gizarte-erakundeak eta gizabanakoak sare berean integratzea.
2. Bazkideekin parte-hartzeko eta partekatutako komunikazioko elkarte zabala eratzea. Eta horixe denez Arantzazuko gizarte-erakundeek abian jarritako ekintzen hartzaille nagusia (masa kritikoa), elkarreraginez, horietan parte hartu dezan sustatzea.
3. Elkarrekin biltzen dituen erreferentzia eta marka beraren inguruan, Arantzazuko gizarte-erakundeen kolaborazioko, sinergiako, eta proiektio publikoko baliabide bezala jokatzeko. Horrek ahalbidetuko du, Arantzazutik, proiektu eta ekimen desberdinen bidez, eskaintzen den inspirazio frantziskotarreko proposamen soziala gizarteari hobeto komunikatzea.
4. Arantzazuko frantziskotarren identitatea eta Santutegiaren berrikuntza-zentzua garatzen lagunduko duten proiektuak eta ekimenak, izan frantziskotarrek bultzatuak, izan Arantzazuko gizarte-erakundeek sustatuak, baliabide ekonomikoak eta presentziaz babestea.
5. Arantzazu bera eta Santutegitik bideratzen diren proiektuak gizarteari gerturatzeko ekimen bereziak garatzea. Eta berdin, gizartea Arantzazuri eta haren proposamenei gerturatzeko ere. Betiere, horiek sustatzen dituzten erakundeekin bat eginik edota elkarlanean: Arantzazu Gaur Fundazioa, frantziskotarrak eta gizarte-erakundeak.

Helburu hauek erdiesteko Elkarteak haren indarrak jarriko ditu, bereziki, honako ekintzetan:

1. Bazkideen kopurua gehitzea jomuga duten kanpainak garatzea. Elkarreak baita dituen gizarte-erakundeen proiektuak babesteko eta horietan parte hartzeko prest dauden bazkideak izateko helburua ahalbidetzeko.

2. Frantziskotarrekin eta Arantzazuko sare soziala osatzen duten erakundeekin koordinazio-bifera egitea, norabide berean lan egitea eta elkarrekin aritzea sustatzeko asmoz, eta horretarako sinergia eta elkarkidetzak eremuak eratzeko modua bilatuz. Bilera horien maiztasuna Zuzendaritza-Batzordeak erabakiko du, baina urtean bi egin beharko dira, behintzat.

3. Elkarrea osatzen duten gizarte-erakundeen eta bazkideen arteko komunikazio arina mantentzea, aldizkako informazio-buletinaren bidez eta abian jarritako ekimen desberdinen gaineko informazioa eskainiz.

4. Elkarreak babestea erabakitzen duen frantziskotarren nahiz Arantzazuko gizarte-erakundeen proiektuen artean kolaborazioko fondoak nola banatu erabakitzea.

5. "Ateak zabalik" delako jardunaldiak edota bestelako ekintzak antolatzea, Arantzazu Gaur Fundazioa, frantziskotarrak nahiz gizarte-erakundeak sustatzen ari diren eraberritze-proiektu desberdinak ezagutzera emateko.

Aurreko idatz-zatian azaldutako jarduerak gorabehera, Elkarreak, bere xedeak betetzeko, honako hauek egin ahalko ditu:

1. Bere helburuak betetzeko edo horretarako baliabideak biltzeko era guztietako jarduera ekonomikoak gauzatzea.
2. Era guztietako ondasunak eskuratzea eta edukitzea, eta mota guztietako ekintzak eta hitzarmenak egitea.
3. Nolanahiko ekintzak burutzea, betiere legeekin eta bere Estatutuekin bat etortzekotan, eta eskumeneko gobernu-organismoek erabakiak balioz hartzea.

Elkarrearen borondatea da beraren ekintzak Arantzazu Gaur Fundazioaren helburuen eta asmoen osagarri izatea, eta helburu horiek modu koordinatuan babestea. Arantzazu Gaur Fundazioak, erakunde publiko nagusienak eta frantziskotarrak barne dituenak, Arantzazu eraberritzeko proiektu integralaren lidergoa eta sustapena bere gain ditu. Horrenbestez, Arantzazuren irudiari zein haren eraberritze-proiektuari zuzenean eragiten dieten Elkarteko proiektuek, aldezturik, Arantzazu Gaur Fundazioaren Batzorde Erreguladorearen onspena beharko dute.

SOZIALDE-EREMUA

3. Artikulua. Elkarre honen helbide nagusia honakoa izango da: Arantzazuko Santutegia. Oñati. Gipuzkoa.

Elkarreak, horrez gain, beste egoitzarik eduki dezake Autonomia Erkidegoan, Batzar Orokorrek horrela erabakiz gero. Elkarrearen egoitza nagusia edo Elkarrearen beste egoitzaren bat tokiz aldatzeko erabakia Batzar Nagusiak hartuko du, eta horrek Elkarreen Erregistroari helbide berria jakinaraziko dio.

LURRALDE-EREMUA

4. Artikulua. Elkarre honen ekintzak honako lurralde-eremu honetan gauzatuko dira nagusiki: Euskal Herrian. Horrek ez du ukatzen Arantzazuren presentzia esanguratsua izan den eta oraindik ere baden munduko beste zenbait herrialdetan zein eskualdetan bere jarduera gauzatzeko aukera.

IRAUPENA ETA DEMOKRAZIA-ARAUA

5. Artikulua. Elkartea betirako eratzen da. Ohiz kanpoko Batzar Orokor Bereziaren erabaki bidez baino ezingo da desegin, VI. Kapituluaren esaten den bezala, edo legeetan jasotako arrazoiren batengatik.

Elkartearen funtzionamenduak eta barne-antolamenduak demokratikoak izan beharko dute, eta pluraltasuna erabat errespetatu beharko da. Erabat deusezak izango dira elkarteko oinarrizko eskubidearen alderdietako edozein betetzen ez duten hitzarmenak, estatutu-xedapenak eta erabakiak.



BIGARREN KAPITULUA

ZUZENDARITZA- ETA ADMINISTRAZIO-ORGANOAK

6. Artikulua. Kide anitzeko honako organo hauek izango dira Elkartearen zuzendaritza- eta administrazio-arduradunak:

- Bazkideen Batzar Orokorra, organo goren gisa.
- Zuzendaritza-Batzordea, kide anitzeko zuzendaritza-organoa iraunkorra.

BATZAR OROKORRA

7. Artikulua. Bazkide guztiek osatzen duten Batzar Orokorraren bidez adieraziko dira bazkideen nahiak.

Batzar Orokorraren eskumenak honakoak dira:

- a) Elkartearen jarduerako plan orokorra onartzea.
- b) Urteko kontuak eta hurrengo urteko aurrekontua aztertzea eta onartzea.
- c) Zuzendaritza-Batzordearen kudeaketa onartzea.
- d) Zuzendaritza-Batzordeko kideak hautatzea.
- e) Kuota arruntak nahiz aparteko kuotak ezartzea.
- f) Estatutuak aldatzea.
- g) Elkartea desegitea.
- h) Beste elkarte batzuekin batera federazioak eta konfederazioak osatzea, edota horietako batzuk uztea.
- i) Ondasunak xedatzea edo besterentzea.
- j) Ordezkaritza-organotako kideen ordainsariak adostea, hala dagokionean.
- k) Bazkide diren gizabanakoek elkartea behin betiko uzteko erabakia hartzea.
- l) Beste sozietate-organoren bati esleitu gabeko beste edozein eskumen.

8. Artikulua. Batzar Orokorrak ohizko bilerak eta bilera bereziak egingo ditu.

9. Artikulua. Ohizko bilera egiteko deia gutxienez urtean behin egin beharko da: bigarren hiru hileroan izango da, 7. artikuluko a), b) eta c) letretan zehaztutako erabakiak hartze aldera.

10. Artikulua. Batzar Orokorra Zuzendaritza-Batzordeak erabakitakoan bilduko da bilkura berezian, bere kabuz edota bazkideen %33ak eskatuta. Bilkura eskatzeko arrazoiak eta helburuak azaldu beharko dituzte. Dena den, honako gaiak aztertzeke eta erabakitzeke bilera egin beharko da:

- a) Estatutuak aldatzea.

J. M. Auzo

b) Elkartea desagitea.

11. Artikulua. Batzar Orokorretarako deialdiak idatziz egin beharko dira, eta bilerak egingo diren tokia, eguna eta ordua adierazi beharko dira, bai eta gai-zerrenda ere, eztabaidatuko diren gaien aipamen zehatzarekin. Deialdia egiten denetik lehenengo deialdiko batzarra egiteko jarritako egunera bitartean gutxienez hamabost egun izan beharko dira. Hala badagokio, bigarren deialdiaren data eta ordua adieraz daitezke; dena dela, deialdi batetik bestera gutxienez ordubeteko tarte bat behar da.



Batzar Orokorrak, ohizkoak nahiz ohiz-kanpokoak, lehenengo deialdian balioz eraturata geratuko dira botoa emateko eskubidea duten bazkideen herena bertarutzen bada; eta bigarren deialdian, botoa emateko eskubidea duten bazkideen kopurua edozein dela ere.

12. Artikulua. Batzar Orokorraren erabakiak bertaratuen nahiz ordezkatuak gehiengo sinplez hartuko dira. Gehiengotzat dugu baiezko botoak ezezkoak baino gehiago izatea.

Hala ere, elkartea desagiteari, estatutuen aldaketei, ondasunen antolamenduari edo besterentzei eta ordezkari-organoko kideen ordainketei buruzko erabakiek bertaratuen edo ordezkatuak gehiengo kualifikatua beharko dute. Gehiengo kualifikatutzat dugu baiezko botoak, balioz, emandako botoen erdia baino gehiago izatea, zurian emandako botoak barne.

Ponderatutako boto-sistema izango da, honako arau hauei jarraiki.

- Bazkide babesleetako bakoitzak, indibidualki, boto bana izango du.
- Bazkide kolektiboek, guztira, bazkide babesleei egotzitako boto-kopuru osoaren 4/5-arekin baliokidea den boto-kopurua izango dute. Bazkide kolektiboek egotzitako boto-kopuru osoa zati berdinetan banatuko da beren artean. Banaketa horren emaitza ez bada zenbaki osoa, bazkide kolektiboek egotzitako boto-kopurua handituko da, behar den neurrian, bazkide kolektibo guztiek mota bereko gainontzeko bazkideek duten boto-kopuru berdina eta zenbaki osoa izan dezaten.
- Bazkide sustatzaileak bazkide babesleei egotzitako boto-kopuru osoaren 1/5-arekin baliokidea den boto-kopurua izango du.

Botoaren ponderazio-sistemaren ondorioz, Batzar Orokorrean, bazkide babesleek botoen %50a izango dute, bazkide kolektiboek botoen %40a eta bazkide sustatzaileak botoen %10a.

13. Artikulua. Bazkideek beste edozein bazkideren gain utz dezakete beraien ordezkotza Batzar Orokorretan parte hartzeko. Ordezkatza hori, idatziz egin beharko da, eta Batzarreko idazkariari eman bilera baino hiru ordu lehenago. Elkartearen egoitza dagoen herrian bizi ez diren bazkideek ordezkotza beste baten esku uzteko adierazten duen agiria postaz bidal dezakete.

ZUZENDARITZA-BATZORDEA

14. Artikulua. Zuzendaritza-Batzordea Elkartearen interesak kudeatu eta ordezkatzeko dituen organoa da, Batzar Orokorraren xedapen eta arretarauei jarraikiz. Bazkideek baino ezingo dute osatu ordezkari-organoa, pertsona fisikoak zein juridikoak izan. Pertsona juridikoek ordezkari-karguak beteko duen pertsona fisikoak izendatuko dute.

Zuzendaritza-Batzordea osatuko dute, gutxienez, hamak kidek eta, gehienez, hamabostek, eta honako karguak izango dira:

- Presidentea
- Presidenteordea

- Idazkaria
- Diruzaina
- 6 bokal



GOBERNANTZA PUBLIKO
ETA AUTOGOBERNU SAILA
Elkarteen Erregistroa
GOBERNANTZA PUBLICA Y AUTOGOBIERNO
Registro de Asociaciones

Estatutu hauetan zehaztutako botoen ponderazioarekin lotua, Zuzendaritza-Batzordearen gutxieneko kideen banaketa honela egingo da: bazkide sustatzaileak kide bat izango du, lau kide bazkide kolektiboen artean izendatu beharko dira, eta beste bost bazkide babesleen artean izendatu beharko dira. Gainontzeko kideak Batzar Orokorrean ohiko akordioz izendatuko dira.

15. Artikulua. Zuzendaritza-Batzordeko kideren bat bilera horietara hiru aldiz jarraian, edo, aldizka, sei aldiz joaten ez bada, dagokion kargua utzi egin beharko du, hutsegite horiek ez baditu arrazoitzen.

16. Artikulua. Batzar Orokorrak hautatuko ditu Zuzendaritza-Batzordeko kargudunak, eta lau urterako izango dira Batzordeak berariaz ezeztatu ezean, eta behin eta berriro hautatu ahal izango dira.

Kargu horiek lau urtetik behin berrituko dira.

17. Artikulua. Zuzendaritza-Batzordekide izateko honako baldintzak bete beharko dira:

- adinduna izatea, eskubide zibil guztien jabe izatea, eta indarrean den legedian ezarritako bateraezintasun-arrazoirik ez izatea;
- Estatutuetan esaten den eran izendatua izatea;
- Elkarteko Bazkide izatea.

18. Artikulua. Zuzendaritza-Batzordekide kargua, Batzar Orokorrak izendatu ostean, onartutakoan edo jabetzerakoan hartuko da.

Hala erabakiz gero, Batzar Orokorrak Zuzendaritza Batzordekideei egun-sariak eta gastuak ordaintzea erabaki dezake.

19. Artikulua. Zuzendaritza-Batzordeko kideek honako kasu hauetan utziko dituzte karguak:

- a) Agintaldia bukatzen denean.
- b) Dimititzen dutenean.
- c) Bazkide izateari uzten dionean, edo kargurako ezintasun-arrazoiak dituenean.
- d) Batzar Orokorrak kargugabetzea erabakiz gero, Estatutu hauetako 16. artikuluan jarritakoaren arabera.
- e) Heriotza.

a) puntuan agertzen dena baldin bada kargua uzteko arrazoia, Zuzendaritza-Batzordeko kideek jarduneko egoeran jarraitu beharko dute lehenengo Batzar Orokorra egin arte, izendapena onesteko ala ezesteko. Ezesten bada, dagokion izendapena egingo da.

Batzordearen osaeran gertatutako aldaketa guztien berri emango zaio Elkartearen Erregistroari.

20. Artikulua. Zuzendaritza-Batzordearen funtzioak honakoak dira:

- a. Elkartearen ohiko kudeaketaz arduratzea, Batzar Orokorrearen jarraibideen arabera eta haren kontrolpean.
- b. Elkarteak aurrera eramango dituen ekintzen egitaraua egitea eta onartzea.
- c. Gastuen eta sarreren urteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera-orria Batzar Orokorriari, onar ditzan, aurkeztea.

- d. Urtero, Elkarateak frantziskotarren eta gizarte-erakundeen proiektuetako zeintzuk, eta nolako neurrian, babestuko dituen ekonomikoki erabakitzea, Batzar Nagusiak onartutako aurrekontuak ahalbidetzen duen neurrian. Babes-fondoak ezingo dira erakundeen behar orokorrak edota ohiko gastuak finantzatzera bideratu, ezpada erakundeek bultzatutako proiektuetara. Kasuan kasu, erakunde bakoitzarekin elkarkidetzaren hitzarmena egingo du Elkarateak, eta horretan zehaztuko da Elkarateak zein modutan egingo duen ekarpen ekonomikoa.
- e. Batzar Orokorraren bileretako gai-zerrenda egitea, eta Batzar Orokorraren berezien nahiz ohikoen deialdiak erabakitzea.
- f. Bazkideek egiten dituzten proposamenei eta iradokizunei erantzutea eta dagozkien neurriak hartzea.
- g. Estatutu hauetan jasotzen diren aginduak interpretatzea eta haietako hutsuneak betetzea, betiere elkarteen inguruan indarrean diren legeei jarraikiz.
- h. Batzar Orokorrak berariazko erabaki bidez ematen dizkion eskumenak gauzatzea, betiere ez badira bere eskumen eskusiboak.

21. Artikulua. Zuzendaritza-Batzordea, Presidenteak eta, hala badagokio, Presidenteordeak erabakitako bakoitzean egingo ditu bilerak, euren kabuz nahiz batzordekideren batek eskatuta. Bileraren buru Presidenteak izango da, edo, bertan ez balego, Presidenteordea. Biak falta badira, berriz, batzordekide zaharrena.

Batzordeak hartutako erabakiak baliozkoak izateko, biltzen diren batzordekideen gehiengoak onartu beharko ditu. Horretarako, gutxienez batzordekideen kopuruaren erdiak egon beharko du Batzarrean.

Idazkariak bilera-aktak egingo ditu. Agiri horiek dagozkien liburuan jasoko dira idatziz.

PERTSONA BAKARREKO ORGANAK

PRESIDENTEA

22. Artikulua. Presidenteak Elkaratearen legezko ordezkariak hartzen ditu. Zuzendaritza-Batzordeak eta Batzar Orokorrak hartutako erabakiak aurrera eramango ditu. Era berean, aipaturiko bi sail horien Presidente izango da.

23. Artikulua. Presidenteari egokituko zaizkio hurrengo ahalmenak:

- Zuzendaritza-Batzordeak eta Batzar Orokorrak egiten dituzten bileren deiak egitea; bilerak bukatutzat ematea; bileretan sortzen diren eztabaidak zuzentzea; eta boto-berdinketa gertatuz gero, boto ebazleaz erabakitzea.
- Elkaratearen ekintzen egitasmoa Zuzendaritza-Batzordeari proposatzea, eta aldi berean, Elkaratearen zereginak bultzatzea eta erabakitzea.
- Balioz erabakitako ordainketak egiteko agintzea.
- Sor daitezkeen premiazko arazoak konpontzea, eta Zuzendaritza-Batzordeari lehenengo bilkuran horien berri ematea.
- Batzar Orokorrak berariazko erabaki bidez ematen dizkion eskumenak gauzatzea, betiere ez badira haren eskumen eskusiboak.



J. H. Auegi

PRESIDENTEORDEA

24. Artikulua. Presidenteordeak Presidenteari lagunduko dio, eta Presidenteak aldi baterako ezintasuna duenean, ordezkatu egingo du. Era berean, Presidenteak berariaz emandako aralmen guztiak izango ditu.



IDAZKARIA

25. Artikulua. Idazkariari dagokio, zehazki, Elkartean sartzeko eskabideak hartzea eta bideratzea, fitxategia eta Bazkideen Erregistro-Liburua zaintzea, eta Akta-Liburuaren zaintzaren eta idazketaren ardura izatea. Era berean, elkarteen arloan indarrean dauden legezko erabakiak bete daitezen arduratuko da, Erakundearen agiri ofizialak zainduz, Elkarteko liburuen eta agirien edukia egiaztatuz eta Zuzendaritza-Batzordearen hautaketari eta Elkartearen egoitza aldatzeari buruzko beharrezko jakinarazpenak dagokion agintaritzarengana bideratuz.

DIRUZAINA

26. Artikulua. Egindako sarrereren eta ordainketen berri emango du Diruzainak, eta diru-sarrereren eta gastuen urteroko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera ere jakinaraziko du. Guzti horiek Zuzendaritza-Batzordearen aurrean aurkeztu behar dira, eta honek Batzar Orokorrari, onartu ditzan.

HIRUGARREN KAPITULUA

BAZKIDEAK: ONARPEN-BIDEAK, BALDINTZAK ETA MOTAK

27. Artikulua. Elkarteko bazkide izan ahalko da (elkartekide ere deitua) Elkarteak babesten dituen xedea eta helburuak sustatzeko nahia duen pertsona oro, fisikoa zein juridikoa, publikoa zein pribatua, eta ekainaren 22ko 7/2007 Euskadiko Elkarte-Legearen 6. artikulua zehaztutako gaitasun-baldintzak eta indarrean den legediak, unean-unean, eskatzen dituen beste baldintza denak betetzen dituen. Honako baldintzak bete beharko dira:

- Adinduna izatea edo adingabe emantzipatua, eta inolako baldintza legalik ez izatea eskubideak gauzatzeko, ezta gaitasun-mugarik ere, ebazpen judizial sendoa dela-eta.
- Pertsona juridikoen kasuan, organo eskudunak espresuki egin beharko du hitzarmena zeinetan adierazten diren Elkarteko bazkide izateko borondatea eta ordezkaritza zein pertsonak egingo duten.

Elkarteak lau bazkide-mota izango ditu:

- a) Bazkide sustatzailea, Elkartearen sorrera bultzatu duena, da ARANTZAZUKO FRANTZISKOTARREN ANAIDIA – ARANTZAZUKO AMAREN SANTUTEGIA – ARANTZAZUKO SANTUTEGIA.
- b) Bazkide kolektiboak, Arantzazun eta haren inguruan, eta Elkarteak babesten dituen printzipioen ildoan, lan egiten duten gizarte-erakundeak (pertsona juridikoak) izango dira, Elkarteak onartuz gero. Zuzendaritza-Batzordearen ardura da gizarte-erakundearen artean izaera horixe antzematea, eta onarpen-hitzarmenean bazkide izateko baldintzak definitzea.

Bazkide kolektibo bezala onartutako erakundeak Elkarteko sare sozialaren kideztat hartuko dira. Halere, Elkarteko kide eta Arantzazuko sare sozialeko parte izateak ez du murrizten,



GOBIERNO VASCO

GOBERNANTZA PUBLIKO

ELKARTEEN ERREGISTROA

REGISTRO DE ASOCIACIONES

PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO

REGISTRO DE ASOCIACIONES

inolaz ere, gizarte-erakunde horiek beren proiektuen joeraren, edukiaren eta gauzatzearen gainean erabakitzeke duten independentzia- eta burujabetza-gaitasuna.

- c) Bazkide babesleak, gainontzeko pertsona fisikoak eta juridikoak dira, publikoak ziren pribatuak, goiko b) atalean jasotako izaera ez izanik, Elkarteari lotzen zaizkionak. Horretarako Zuzendaritza-Batzordeari eskaera egin beharko zaio, eta haren aldetik onarpen-hitzarmena jaso beharko da.
- d) Ohorezko bazkideak, Estatutuetako 29. artikuluan zehaztutakoak izango dira.

28. Artikulua. Elkartean sartu nahi duenak idatziz aurkeztu beharko du bere eskabidea. Idatzi hori Presidenteari zuzenduko zaio. Presidenteak horren berri Zuzendaritza- Batzordeari emango dio, eta horrek erabakiko du eskabidea egin duena Elkartean onartu ala ez. Dena den, gorako errekurtsua jarri ahal izango da Batzar Orokorren aurrean.

29. Artikulua. Batzar Orokorren erabakiz, Elkartek Ohorezko Bazkide izendatu ahal izango ditu bazkide izateko baldintza guztiak bete arren Elkartearen helburuak betetzeko bertaratu ezin diren pertsonak. Bazkide horiek ohorezkoak dira soilik, eta beraz, ez dira legezko bazkide, ez dute Elkarteko zuzendaritzako eta administrazioko gobernu-organoetan parte hartzeko eskubiderik, ez eta inongo betebeharrak ere.

BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

30. Artikulua. Bazkide guztiek honako eskubideak dituzte:

- a) Elkarteei buruzko Legearen edo Estatutuen kontrako erabakiak eta jarduteak inpugnatzea, aurkatutako erabakiaren edukia ezagutu edo ezagutzeko aukera izan duen egunetik hasi eta 40 egun naturaleko epean.
- b) Elkartearen gobernu- eta ordezkaritza-organoen osaerari, Elkartearen kontu-egoerari eta haren jardueri buruzko informazioa jasotzea.
- c) Elkarteko beste bazkideen nortasuna, diru-sarreraren eta gastu-kontuen egoera, eta Elkartearen ekintzen garapenaren berri uneoro jakitea.
- d) Batzar Orokorretan hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea erabiltzea, eta eskubide hori beste bazkideren baten esku utzi ahal izatea.
- e) Elkarteko Estatutu hauen arabera, Elkarteko zuzendaritza-organoetan parte hartzea eta organo horietako hautagai nahiz hautesle izatekoa.
- f) Indarrean diren legeetan zehaztutako bazkide-zerrendan agertzea, eta Elkartearen ikurra, baldin badu behintzat, erabiltzea.
- g) Estatutuen eta, izanez gero, barne-araudien ale bana edukitzea, eta zuzendaritza-organoei eskakizunak eta kexak aurkeztea.
- h) Elkartearen talde-ekintzetan parte hartzea, eta bazkideen erabilerako gauzak erabiltzea (liburutegiak, elkartearen egoitza, eta abar). Zuzendaritza-Batzordeak, kasuan kasu, erabakitako moduan.
- i) Zigortze-neurriak hartu baino lehen, bazkideak idatziz adierazitakoa kontuan hartzea eta neurri horiek hartzea eragin duten arrazoiei buruz azalpenak jasotzea. Neurri horiek hartzeko arrazoiak bazkideei dagozkien betebeharrak ez betetzean izan dezakete oinarria, soilik.
- j) Nahi denean, bazkidetza bertan behera uztea. Horrek ez du ezeztatzen betetzeko dauden hartutako konpromisoak bete behar izatea.

31. Artikulua. Bazkideen betebeharrak honakoak dira:

- a) Elkartearen helburuak gauzatzeko lankidetzak aktiboa ematea.

- b) Batzar Orokorrak edo Zuzendaritza-Batzordeak ezarritako bazkide-sariak, derramak eta bestelako ekarpenak ordaintzea, gastuak ordaintzeko. Kuoten, derramen eta bestelako ekarpenen kopurua desberdina izan ahalko da bazkide-motaren arabera.
- c) Estatutu hauek eta Elkartearen zuzendaritza-organoek balioz hartutako erabakiak bete eta horiei men egitea.



ZIGOR-ARAUAK

32. Artikulua. Estatutuak edo Batzar Orokorrak nahiz Zuzendaritza-Batzordeak hartutako erabakiak behin eta berriz hausteagatik Zuzendaritza-Batzordeak bazkideak zigortu ahal izango ditu. 15 egunetik hilabetea bitarte eskubideak kentzetik Elkartetik betirako egozterainokoa izan daiteke zigorra, betiere 34. artikulutik eta 37.a bitartekoetan jasotakoaren arabera.

Ondorio horietarako, Presidenteak zigorgarri izan daitezkeen jokabideak aztertzeko ikerketa egiteko erabakia hartu ahal izango du. Ikerketa horiek Idazkaritzak eramango ditu aurrera, eta Zuzendaritza-Batzordeari neurri egokiak hartzeko proposatuko dio. Zigorra ezartzeko ahalmena Zuzendaritza-Batzordeak izango du, eta zigorra ezarri aurretik interesatuak adierazitakoa kontuan hartu beharko da.

Erabaki horren arrazoiak emango dira beti, eta haren aurkako errekurtsua jarri ahal izango da Batzar Orokorraren aurrean, 30.1. artikuluan zehaztutako ekintzen kalterik gabe.

BAZKIDETZA GALTZEA

33. Artikulua. Bazkidetza honako kasuetan galduko da:

- Heriotza (edo desegitea, pertsona juridikoen kasuan);
- Bazkidea nahita aldentzea;
- Zuzendaritza-Batzordeak erabakitako zigorra dela-eta, honako kasu hauetan: Estatutuotatik eratorritako betebeharrak eta Batzar Orokorrak eta Zuzendaritza-Batzordeak balioz hartutako erabakietan ezarritako betebeharrak nahita eta larriki haustea behin eta berriz.

34. Artikulua. Bazkideren bat 33.3. artikuluan zehaztutako kasuetako edozeinetan bada, Presidenteak agindu diezaiokie Idazkariari, gertaeren berri izatearren, aurretiazko eginbide batzuk egin ditzan. Eginbide horiek ikusita, Presidenteak ekintza bertan behera uztea edota zigor-espeditenteari hasiera ematea erabaki dezake.


35. Artikulua. 33.3. artikuluan zehaztutako kasuetako edozeinengatik zigor-espeditentea hasiko balitz, ekintzak egiaztatu ondoren, idatzia bidaliko dio dagokionari, leporatzen zaizkion salaketen berri emateko. Salaketa horiei erantzuteko, bere aldeko arrazoiak azaldu ahal izango ditu 30 eguneko epean. Epe hori amaituta, edonola ere, Zuzendaritza-Batzordeko lehen bilkurara eramango da kasua, eta bertan hartuko da erabaki egokia. Horretarako Batzarkideen gehiengoaren *quorum*-a behar izango da.

Elkartetik kanporatzeko erabakia interesatuari jakinaraziko zaio, eta, era berean, hurrengo Batzar Orokor Berezian errekurtsua aurkez dezakeela azalduko zaio. Batzar horretarako deirik ez bada egiten hiru hilabeteren barruan, errekurtsu hori nahikoa izango da batzarra egiteko. Bien bitartean, Zuzendaritza-Batzordeak dagokionari bazkide-eskubideak kentzea erabaki ahal izango du, eta Zuzendaritza-Batzordeko kide bada, kargu hori utzarazi beharko dio.

Kanporatzeko espedientea Batzar Orokorrari aurkeztuz gero, Idazkariak espedientearen laburpena egingo du, Zuzendaritza-Batzordeak interesatuak aurkeztutako idatziaren eta ekintzen berri zehatza Batzar Orokorrari eman ahal izateko, azken horrek dagokion erabakia har dezan.



36. Artikulua. Kanporatze-erabakia, betiere arrazoiak emanda, dagokionari jakinaraziko zaio eta horrek, eskubideaz baliatuz, auzitegietara jo ahal izango du; bere ustez, erabakia legearen edo Estatutuen aurkakoa dela jotzen badu.



37. Artikulua. Bazkideren bati kanporaketaren berri ematerakoan, berak nahi izanda edo zigorra ezarri zaiolako, bete gabe dituen betebeharrak betetzeko eskatuko zaio, hala badagokio.

LAUGARREN KAPITULUA

SORTZE-ONDAREA ETA AURREKONTU-ARAUAK

38. Artikulua. Elkaratearen sortze-ondarea 0 eurokoa da.

39. Artikulua. Elkarateak, bere ekintzak aurrera eramateko, honako diru-baliabideak baliatuko ditu:

- Sarrera-kuotak.
- Aldizkako kuotak.
- Elkarateak dituen ondasunetatik eta eskubideetatik ateratzen dituen ekoizpenak. Baita legez jaso ditzakeen diru-laguntzak, ondareak eta dohaintzak ere.
- Estatutuen helburuak kontuan harturik, Zuzendaritza-Batzordeak erabakitako ekintza bidezkoek dakartzaten irabaziak, betiere Estatutu hauetan jasotako helburuen esparruan.

Elkarte- eta ekonomia-ekitaldia urtekoa izango da, eta urte bakoitzeko abenduaren 31n itxiko da.

Elkarateak, jarduera ekonomikoak (zerbitzuak ematea barne) gauzatuta, lortzen dituen irabaziak haren helburuak betetzeko baino ez dira erabili behar. Inolaz ere ezingo dira bazkideen artean banatu, ez eta haien ezkontideekin edota haiekin antzeko afektibitate-erlazioan bizi diren pertsonekin ere, ez eta haien senideekin ere. Ezingo zaizkio, halaber, mozkina irabazteko asmoa duten pertsona juridikoei edo fisikoei doan laga.

BOSGARREN KAPITULUA

ESTATUTUEN ALDAKETA


40. Artikulua. Estatutuen aldaketa bazkideen Batzar Orokorrean erabaki behar da, bai bere ekimenez, bai bazkideen %33ak eskatuta; Batzar Orokorrak xede horrekin deitua izan behar du. Dena den, bi kasuetan Zuzendaritza-Batzordeak hiru bazkidek osatutako batzorde-txostengilea izendatuko du, aldaketa-egitasmoa idazteko. Egitasmo hori Zuzendaritza-Batzordeak ezarritako jarraibideen arabera egingo da, eta Batzorde berak jarriko du egitasmoa amaitzeko epea.

41. Artikulua. Aldaketa-egitasmoa epe barruan idatzi eta gero, Presidenteak hurrengo Zuzendaritza-Batzordearen gai-zerrendan sartuko du. Batzorde horrek egitasmoa onartu, edo, berriz ere, lantaldeari itzuliko dio, atzera ere aztertzeko.

Egitasmoa onartuz gero, Zuzendaritza-Batzordeak hurrengo Batzar Orokor Bereziaren gai-zerrendan sartzea erabakiko du, edo horretarako propio egingo du Batzar Orokorrerako deia.

42. Artikulua. Batzarrerako deiarekin batera, Estatutuen aldaketen testua bidaliko da, bazkideek egoki iruditzen zaizkien zuzenketak Idazkaritzan aurkeztu ahal izateko. Zuzenketa-proposamen hori Batzar Orokorrari emango zaio, betiere batzarra egin baino zortzi egun lehenago Idazkaritzan jaso badira.

Zuzenketak banaka nahiz taldeka egin daitezke. Idatziz egin beharko dira, eta beste testu aukeraketa bat izan beharko dute. Zuzenketa bozkatu ostean, Batzar Orokorrak Estatutuak aldatzeko erabakia hartuko du, eta Elkartearen Erregistroan inskribatzen denetik aurrera baino ez du eragina izango hirugarrenengan.



SEIGARREN KAPITULUA

ELKARTEAREN DESEGITEA ETA ELKARTE-ONDAREAREN ZERTARAKOA

43. Artikulua. Elkartearen desegingo da:

- Nahi hori horretarako bildutako Batzar Orokorrean azaldu beharko da, eta bertan daudenen gehiengoaren botoak jaso beharko ditu, bazkide bertaratuen eta ordezkatuaren botoen gehiengo kualifikatuaz.
- bertaratuen nahiz ordezkatuaren gehiengo sinplez hartuko dira.
- Bazkide Sustatzailearen erabakiz.
- Kode Zibileko 39. Artikuluan azaltzen diren arrazoiengatik.
- Epai judiziala dela-eta.

44. Artikulua. Elkartearen deseginez gero, erabakia hartu duen Batzar Orokorrak Kitapen-Batzordea izendatuko du. Batzorde hori Zuzendaritzako bost batzordekideek osatuko dute, eta dagoen diruaz arduratuko da.

Bazkideekiko eta besterekiko Elkartearen zorrak ordaindu ondoren, gelditzen den elkarte-ondarea, gelditzen bada behintzat, Arantzazuko Santutegiko Frantziskotarren Anaidiari emango zaio bere helburuetarako, irabazi-asmorik gabeko ekintzak gauzatzeko.

AZKEN XEDAPENA

Estatutu hauek garatzeko asmoz, Batzar Orokorrak barne-araudia onartu ahal izango du. Horrek, inolaz ere, ez ditu Estatutuaren aginduak aldatuko.

Eranskina

ASOCIACIÓN "ARANTZAZUKO ADISKIDEAK. RED SOCIAL DE ARANTZAZU" ELKARTEKO BAZKIDEEN ONARPENA ETA SAILKAPENA, ESTATUTUETAKO 27. ARTIKULUAN JASOTAKOAREN ARABERA.

Estatutuetan egitea onartu den aldaketaren ondoren, adierazitako moduan, Arantzazuko eraberritze-proiektuaren lidergoa beraren gain hartu duen Arantzazu Gaur Fundazioa Erakundea sortzearen ondorioz Elkarteak egin duen birmoldatze-prozesuaren erantzuna dena, Elkarteak, aurrerantzean, bazkide kolektibo bezala onartuko ditu Arantzazun lanean diharduten gizarte-erakundeak, eta Elkarteak osatzen duten bazkideen artean sailkapena egingo du, berritutako Estatutuetakoko 27. artikuluan jasotako bazkide-moten edo kategorien arabera.

GIZARTE-ERAKUNDEEN ONARPENA

Bazkide kolektibo bezala honako gizarte-erakundeak onartuko dira:

- Arantzazuko Frantziskotarren Anaidia.
- TAU Fundazioa.
- Arantzazu Edizio Frantziskotarrak.
- Arantzazu aldizkaria.
- Arantzazu Gaur Fundazioa.

BAZKIDEEN SAILKAPENA

- A) BAZKIDE SUSTATZAILEA: Arantzazuko Frantziskotarren Anaidia.
- B) BAZKIDE KOLEKTIBOAK: TAU Fundazioa, Arantzazu Edizio Frantziskotarrak, Arantzazu aldizkaria eta Arantzazu Gaur Fundazioa.
- C) BAZKIDE BABESLEAK: gainontzeko bazkideak dira.
- D) OHOREZKO BAZKIDEAK: ez daude, oraingoz.

AS / G / 12038 / 2005

Estatutu hauek ikun-onetsi dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Erroldal Nagusiaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 29ko 145/2008 Dekretuan eta horrekin bat datozen gainontzeko arauetan zehaztutako ondorioetarako

2017 UZT. 17